LITERATURA




## UN PASEO ENTRE «FANTASMAS»

**DESTELLOS EN EL AGUA**
Gabriel Villota Toyos
Melusina, 2010
192 páginas. 10 euros

«Esta es una historia triste. Una historia de fantasmas. De jóvenes que murieron demasiado pronto, demasiado solos. (...) Y sin embargo, no me interesa particularmente hablar de sus muertes como de sus vidas, y de cómo estas pudieron acercarse en determinados momentos a una suerte de estado de gracia, vinculados a su música en casi todos los casos, o a su escritura en otros». Nick Drake, Tim Buckley, Jeff Buckely, Mino Bergamo y Marko K. son algunos de estos «fantasmas que buscaron la gracia» y que regresan ahora, en la prosa de Gabriel Villota, para acompañarnos en este paseo por un mundo que fue y pudo ser.




## ATRAPADOS EN SUS MISERIAS

**DE UN CASTILLO A OTRO**
Louis-Ferdinand Céline
RBA, 2010
352 páginas. 24 euros

1944. Los aliados han liberado Francia y las tropas alemanas en retirada conducen a un numeroso grupo de colaboracionistas del Gobierno de Vichy al castillo de Sigmaringen. Más de mil personas angustiadas, sin norte ni futuro, se hacinan en un castillo laberíntico. Oficiales, sus esposas, sus amantes, y colaboracionistas variopintos, entre ellos el propio Céline, su esposa, su gato y un amigo actor, son muestra de la derrota, los excesos y las miserias de la condición humana. Céline retrata la situación en esta novela transparentemente autobiográfica, en la que conjuga el humor negro y el cinismo más punzante.

ANTZERKIA

# Tentsio betean

**HERIOA ETA DONTZEILA**
Ariel Dorfman. Itz: Fito Rodriguez
Txalaparta, 2010
117 orrialde. 14 euro

Iker ZALDUA




Ariel Dorfmanen bibliografiak agortezina dirudi, izenburu ugari ageri zaizkigu bere sorkuntzaren taulan 1968an "El Absurdo entre cuatro paredes" kaleratu zuenetik; arrasto ahula utzi dute batzuk, beste batzuk aldiz, dirdira egiten dute taula horretan, horren adibide da Fito Rodriguezek "Herio eta dontzeila" izenburupean itzuli duen lana. Antzerki lan hori ehunka antzeztokitan ikusi ahal izan da eta pantaila handira ere eraman zuen Roman Polanskik 1994an. Gurean argitalpen berria bada ere, Torturaren Aurkako Taldeak antolatuta gure lurraldeko oholtza gainean ere mintzatu izan da aurrez, euskara garbian.

Tortura, hori da Buenos Airesen jaiotako idazle txiletarrak antzerki lan honetan jorratu nahi izan zuen gaia, giza eskubideen alde agertu izan da gaztetatik, batez ere, Txilen (1967an bertako nazionalitatea eskuratu zuen) eta Salvador Allenderen gobernuan ere sartu zuen muturra, harekin elkarlanean aritzeko asmoz. Pinochetek emandako estatu kolpearen ondotik, ihes egin zuen ordea. Fito Rodriguezek antzerkia euskaraz emateko proposamena luzatu zionean hark ez zuen zalantzarik izan «Torturaren aurkako edozein ekimenen alde nago, beraz, antzezlana zuen hizkuntza ederrera eramatearekin bat natorkizu» erantzun omen zion itzultzaileak hitzaurrean aitortzen duenez.

Gai mardula orkestra-zuzendari, eta tentsioa nota guztien gainetik, torturaren doinu labainkor bezain ozena azaleratzen, Schuberten izen bereko melodia bikainaren atzean ezkutaturik; izan ere, konpositore austriarrak idatzitako lan leuna entzuten da Paulinaren belarrietan mota guztietako basakeriak jasaten dituen bitartean, errealitatea lausotzeko ahalegin gaiztoan. Hark, aitzitik, ederki asko iltzatu du garunean behin eta berriz pairatutako bortizkeria. Hamabost urte beranduago, patuak bere etxera eraman du torturatzaileetako bat, hori uste du berak bederen, sekula ikusi ez bazuen ere, mamua ezagutu egiten baita. Justizia egiteko parada aurrez aurre, mendekuaren tentazioak maiz tentatzen duen bitartean. Joko gordina, jasandakoaren mina, tentsioa, printzipioen guda, Schuberten doinua belarritik ateratzeko parada, leun dena leun entzuteko aukera, 15 urteko isiltasuna tiro batez apurtzeko grina.

Gaiak eta egoerak gehiago behar ez badute ere, pipermina bota dio Dorfmanek Gerardo sortuta. Paulinaren senarra, legegizona, diktadurako biktimen Ikerketa Batzordeko buru izendatu berri dutena, egoerari zentzua jarri nahi dion agintari zimela.

Hori agertokian agertzen zaiguna, hori Arielek sortu duen egoera, proposatzen digun eszena. Guztia erritmo bizi batekin eta sabela behin baino gehiagotan korapilatzeko moduko elkarrizketez betea. Lerro artean bestelako gai batzuk ere hauteman daitezke, desleialtasuna kasu, eta matxismo zertzelada batzuk ere badirela esatera ausartuko nintzateke, agian urrunegi joatea izan badaiteke ere.

Kontuak kontu, lan bikaina dela iruditzen zait, egonezina sorrarazten du eta, aldi berean, orrialdez orrialde guztia errenkada batean irensteko irrika. Azkenean, liburua ixtearekin batera, saihestezina da gaiaren gertutasunaz gogoeta egitea, hanhemen Schuberten "Herioa eta dontzeila" entzun daitekeela pentsatzea eta, zoritxarrez, karriketan Paulina ugari dagoela, egunez egun, urtez urte justizia egiteko aukera etxeko atarian noiz agertuko zain.

## KALERATU BERRIAK




### AJUSTE DE CUENTAS CON EL PASADO

**LA ESPOSA DEL REY DE LAS CURVAS** | Alfredo Bryce Echenique
Anagrama, 2010
176 páginas. 15 euros

Colección de cuentos en la que el autor peruano emprende nuevas exploraciones en la condición humana. En todos ellos, los protagonistas emprenden largas y dudosas travesías, entablan complejas relaciones amorosas o, simplemente, se enfrentan con sus propias obsesiones. La vida les ha llevado a ello.




### INCENDIO Y DESTRUCCIÓN DE DONOSTIA

**EL ASALTO A LA BRECHA**
Javier Sada
Txertoa, 2010
160 páginas. 12 euros

Visión panorámica del incendio que asoló Donostia en 1813. El autor, gran conocedor de la historia donostiarra, ha seleccionado una serie de testimonios que ofrecen una idea vívida y real de lo que pasó aquel 31 de agosto de hace casi doscientos años, cuando las tropas del duque de Wellington tomaron la ciudad.




### DESAFÍO A SU TIEMPO

**CORAZONES SAGRADOS**
Sarah Dunant
Seis Barral, 2010
480 páginas. 21,50 euros

1570, ciudad italiana de Ferrara. Convento de Santa Caterina. Serafina tiene 16 años, pertenece a una familia noble y sus padres, en su afán de separarla de un amor ilícito, le obligan a entrar en el convento. La joven jura escapar y, entre tanto, su lucha constante desafía la estructura política de Santa Caterina.




### LA RESISTENCIA IRAQUÍ

**LA HORA DE IRAQ**
Varios autores. Ed: Jaled alMaani
Icaria, 2010
189 páginas. 17 euros

Este libro recoge las ponencias de algunos de los participantes en los encuentros sobre la unificación de la resistencia iraquí, celebrados en Damasco en 2009. El volumen se completa con el comunicado resultante de la Conferencia Internacional de la Resistencia Política Iraquí celebrada el pasado mes de junio en Gijón.